

Argazkia: Nagore Lejarreta

L.G. / D.L.: SS-132-2017

# XVI. Sagardo Lehiaketa

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak

Cofradía Vasca de Gastronomía
Gastronomiazko Euskal Anaiartea

2017.06.03 | 12.00

gipuzkoa.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

# XVI. SAGARDO LEHIAKETA

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak

## OINARRIAK

### *Lehena*

### *XEDEA*

Deialdi honen xedea da Donostiako Euskal Gastronomia Elkartean **2017ko ekainaren 3an** ospatuko den ***XVI. Sagardo Leiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak*** izeneko lehiaketa arautzea.

### *Bigarrena*

### *ANTOLAKETA*

**2.1 *BATZORDEA***

Lehiaketa Batzordea honela osatuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko bi ordezkari eta Euskal Gastronomia Elkarteko ordezkari bat; eta bere egitekoa izango da *"XVI. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak"* izeneko lehiaketa kudeatzea.

**2.2 *EPAIMAHAIA***

Sagardo lehiaketako epaimahaia bederatzi lagunek osatuko dute, ondoren zehazten den moduan:

- Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatua izango da epaimahaiburua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak zazpi kide proposatuko ditu epaimahairako. Proposatutako kideak ENAC erakundeak egiaztatutako sagardoaren dastaketa paneleko kideen artean aukeratuko dira.

- Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko funtzionario batek, Antolaketa Batzordeko kide denak, egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin baina botorik gabe.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta epaimahaiburuak berdinketak erabakitzeko kalitateko botoa izango du.

Epaimahaiaren osaketa Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako foru diputatuaren foru aginduaren bidez jakinaraziko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.



## *Hirugarrena*

### ***PROZEDURA***

### 3.1 IZEN EMATEAK

Sagardo naturala bakarrik onartuko da. Sagardo naturala egiten duten enpresek Gipuzkoan kokaturik egon behar dute eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan izena emanda; horrez gain, Botilaratzaile Erregistroa eta Osasun Erregistroa eduki behar dituzte.

Errolda eta erregistro agiri horiek **2017ko apirilaren 12ko 14:00ak** baino lehen lortu behar dira, orduan bukatzen baita eskariak aurkezteko epea.

Eskariak, behar bezala beteta, helbide honetara bidali behar dira:

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua**
**Landare Alorreko Unitatea**
**Gipuzkoa plaza z/g. 20004 Donostia**
**Tel: 943 112183 - Faxa: 943 426920**

## 3.2 LAGINAK JASOTZEA

3.2.1. Antolatzaileek, sagardotegi bakoitzean, kupeletik zuzenean hartuko dituzte laginak.

- Lehiaketara aurkeztu ahal izateko, berrehun mila litro sagardo baino gehiago ekoizten dituzten sagardotegiek bost kupel beterik eduki behar dituzte eta gutxiago ekoizten dutenek, berriz, hiru kupel.
- Sagardogileak lehiaketara aurkeztu nahi dituen kupelak edo sorta (kupel nahasketa) zehaztu beharko ditu. Kupel horiei zenbaki bana ipiniko zaie. Zozketa bidez, horietako bat bakarrik aukeratuko da eta handik aterako da lagina.
- Kupelak, nahiz eta lote desberdinetan egon, zozketara behin bakarrik aurkez daitezke.
- Lehiakide bakoitzaren lagina "Sagardoa" ereduko 13 botilez (ilunak ez) osatuta egongo da, eta sagardogileak berak ekarri behar ditu botila horiek.
- Botilak etiketarik gabe aurkeztu behar dira. Antolatzaileek etiketa bana ipiniko diete, guztiei berdina, zenbakizko identifikazio batekin.
- Laginak apirilean zehar jasotzea aurreikusita dago.
- Botilaratzea garai hori baino lehenago egin ohi duten sagardogileek jakinarazi egin beharko dute, laginak jasotzera joateko.
- Tapoiak, antolakuntzak jarriko ditu, botila guztien anonimatua gordetzearren.

3.2.2. Lagin bakoitzeko bi botila laborategi enologiko ofizial batera bidaliko dira, analiza dezaten.

- Ondoren zehazten den araudia betetzen duten laginak dastatze fasera pasako dira; hots, Sagardoaren eta sagarretik ateratako beste edari batzuen erregelamendua (Nekazaritza Ministerioaren 1979ko abuztuaren 1eko Agindua, sagardoak eta sagarretik ateratako edariak arautzekoa. Ikus 1979ko abuztuaren 28ko 206. zk. BOE) eta gainera fruktosa-glukosa maila 5 g/l edo gutxiago dutenak.
- Bigarren dastatze fase horretan, epaimahaiak gehienez sei sagardo hautatuko ditu, eta horiek finalean parte hartuko dute. Finala, **2017ko ekainaren 3an, larunbata,** izango da, eguerdiko hamabietan Donostiako Euskal Gastronomia Elkartearen egoitzan.
- Sagardo lehiaketaren fase guztietan, sagardoen anonimatua gordeko da. Irabazleen izenak ematerakoan ere, lehenengo hiru postuak lortu dituztenen izenak bakarrik emango dira ezagutzera.

## *Laugarrena*

### ***SARIAK***

Lehiaketan finalista geratzen diren lehenengo hirurei honako sari eta garaikurrak emango zaizkie:

| | |
|---|---|
| Lehenengo saria: | **3.000 euro,** txapela eta garaikurra. |
| Bigarren saria: | **1.500 euro** eta garaikurra. |
| Hirugarren saria: | **1.000 euro** eta garaikurra. |

Lehiaketaren finalera iritsi diren gainerako lehiakideei diplomak emango zaizkie.

Sariak Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako diputatuaren Foru Aginduaren bidez emango dira, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Epaimahaiak eman gabe utzi dezake sari horietakoren bat.

## *Bosgarrena*

### ***INTERPRETAZIOA***

Oinarri hauen interpretazioan sor daitekeen zalantza oro Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren bidez.



## *Cuarta*

### ***PREMIOS***

Se establecerán premios y trofeos para los tres finalistas del Concurso, consistentes en:

| | |
|---|---|
| Primer Premio: | **3.000 euros,** Txapela y Trofeo |
| Segundo Premio: | **1.500 euros** y Trofeo |
| Tercer Premio: | **1.000 euros** y Trofeo |

Al resto de finalistas se les entregará un diploma acreditativo de su condición.

La concesión de los premios se realizará mediante Orden Foral de la Diputada de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial y será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El Jurado podrá declarar desierto cualquiera de los Premios.

## *Quinta*

### ***INTERPRETACIÓN***

Cualquier duda que pueda surgir respecto a la interpretación de las presentes bases, será resuelta por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.



## 3.2 RECOGIDA DE MUESTRAS

3.2.1. La organización del Concurso recogerá las muestras directamente de la kupela o del tonel, en las respectivas bodegas.

- Para presentarse al Concurso se precisa un mínimo de cinco toneles llenos, para las sidrerías que elaboren más de doscientos mil litros, y de tres para las de menor volumen.
- El sidrero indicará los toneles o lote (mezcla de toneles) que presenta al Concurso; éstos se numerarán. Por sorteo se escogerá solamente uno, del cual se extraerá la muestra.
- Los toneles, aunque constituyan lotes diferentes, solo podrán presentarse al sorteo una sola vez.
- La muestra consistirá en trece botellas por concursante del modelo "Sagardoa", (no oscuras), que facilitará cada sidrero.
- Las botellas no presentarán etiqueta alguna. La organización colocará una etiqueta igual a todas las botellas con una identificación numérica.
- La fecha prevista para la recogida de muestras será durante el mes de abril.
- Aquellos elaboradores que habitualmente embotellen con fecha anterior a la descrita deberán notificarlo, para proceder a recoger sus muestras.
- Los tapones los aportará la organización a fin de mantener el anonimato en todas las botellas.

3.2.2. Dos botellas de cada muestra se enviarán a un laboratorio enológico oficial para su análisis.

- Aquellas muestras que cumplan la "Reglamentación de la Sidra y otras bebidas derivadas de la manzana" (Orden del Ministerio de Agricultura de 1 de agosto de 1979, por la que se reglamentan las sidras y otras bebidas derivadas de la manzana. BOE nº 206, de 28 de agosto de 1979) y que, además, contengan igual o menor cantidad de 5 g/l de fructosa – glucosa, pasarán a la fase de cata.
- En esta segunda fase, la de cata, el Jurado seleccionará como máximo seis sidras finalistas, que serán las que concursen en la final. Dicho evento tendrá lugar el **sábado** día **3 de junio de 2017**, a las doce del mediodía, en la "Cofradía Vasca de Gastronomía" de San Sebastián.
- En todo momento de la fase del Concurso de Sidra se mantendrá el anonimato de las sidras. Sólo se darán a conocer los tres primeros premios del Concurso.

## *Tercera*

### *PROCEDIMIENTO*

### 3.1 INSCRIPCIONES

Solamente se admitirá a concurso la sidra natural. Las empresas elaboradoras de sidra natural radicarán en territorio guipuzcoano y estarán inscritas en el Registro de Industrias Agrarias del Gobierno Vasco; asimismo dispondrán del Registro de Embotellador y del Registro de Sanidad.

Dichos Registros se obtendrán antes de las **14:00 horas del 12 de abril de 2017**, plazo en el que finaliza la presentación de instancias.

Las instancias debidamente cumplimentadas se harán llegar a:

**Diputación Foral de Gipuzkoa**
**Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial**
**Unidad del Área Vegetal**
**Plaza de Gipuzkoa s/n.20004 San Sebastián**
**Tel.: 943 112183 - Fax: 943 426920**

- Actuará como Secretario un funcionario del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, miembro del Comité Organizador, con voz pero sin voto.

Las decisiones se tomarán por mayoría, ostentando la Presidenta el voto de calidad para dirimir empates.

La composición del Jurado se hará pública mediante Orden Foral de la Diputada de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial debiendo publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



# XVI CONCURSO DE SIDRA

## Premios Diputación Foral de Gipuzkoa

### BASES

### *Primera*

#### ***OBJETO***

Es objeto de la presente convocatoria regular el ***"XVI Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa"***, a celebrar el día **3 de junio de 2017** en la Cofradía Vasca de Gastronomía de San Sebastián.

### *Segunda*

#### ***ORGANIZACIÓN***

#### 2.1 COMITÉ

El Comité del Concurso estará constituido por dos representantes del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y un representante de la Cofradía Vasca de Gastronomía, encargándose de la gestión del *"XVI Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa"*.

#### 2.2 JURADO DE CATA

El Jurado del Concurso de Sidra estará formado por nueve miembros y se constituirá de la siguiente manera:

- La Presidenta del mismo será la Diputada Foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.
- El Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa propondrá siete miembros para el Jurado. Éstos se escogerán entre los componentes del acreditado Panel de Cata de Sagardoa (E.N.A.C.).




# XVI Concurso de Sidra

## Premios Diputación Foral de Gipuzkoa

Cofradía Vasca de Gastronomía
Gastronomiazko Euskal Anaiartea

03.06.2017 | **12.00 h**

**gipuzkoa.eus**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA